

Intxaurreondo

Ibiltariaren VII. Astea

Hilaren 26an Ibiltariaren VII. Astea hasiko da, Ipar Haizea elkarreak eta Donostia Kulturak antolatuta. Bost egunen buruan hainbat diapositiba emanaldi eta hitzaldi egingo dira.

Hilaren 26an Iñaki Edroso ibiltariaren "Ahhagar amets bat" izeneko diapositiba muntaia ikusi ahal izango da. Ondoren, egileak Ahhagar basaortuari buruzko hitzaldia eskainiko du euskaraz.

Hurrengo egunean, Joseba Egibarren txanda izango da. Egibarrek bi hitzaldi emango ditu: "Thule, azken trineo ehiztariak Zirkulu Polar Artikoan" eta "Medulak gaur egun". Ordu erdi inguru iraungo dute Egibarren diapositiba emanaldiek.

Hilaren 28an Jose Crespo



Jose Crespo Barea, "Pigli"-k, hainbat eta hainbat kilometroz bidaide izandako kamioia eramango du Bernart Etxepare plazara.

Barea "Pigli"-k Donostiatik Kamerunerako kamioiz egindako bidai zirrargarriaren berri emango die bertaratutakoiei. "Pigli"-ren esanetan, abentura Donostian bizitzea da eta ez handik hona ibiltzea.

"Pigli"-k hainbat eta hainbat kilometroz bidaide izan duen kamioia eramango du Bernart Etxepare plazara.

Afrika eta Alaska

Hilaren 29an, bestalde, Afrika

Korrika datorrela

Hilaren 28an Korrika Batzordeak bilera egingo du AEKko euskaltegian (Basobiki 29, baxua) 14.30etan. Bileraren helburua Korrika Txikia antolatzea da. Besteak beste, herri afaria, herri kirolak eta ginkana egitea aurreikusi da.

Hainbat diapositiba eta emanaldi egingo dira

gertuagotik ezagutzeko aukera izango da, Mikel Essery Arrutirekin. Namibiako basamortua, Okavango delta, Simba tribuak, Victoria urjauzi ospetsuak eta Malawi aintzira izango dira diapositiba muntaiko eta ondorengo hitzaldiko protagonistak nagusiak.

Hilaren 30an, azkenik, Angel Fernandezek "Alaska, azken muga" izeneko muntaia eskainiko du. Gai polita aukeratu du Fernandezek, izan ere, 1728an errusiarrek Alaska aurkitu zutenetik lurralde hori urte bilatzaile eta esploratzaileen joan etorrien lekuko izan da, eta hain zuzen ere, horixe da egileak gogora ekarri nahi diguna.

Hitzaldi eta diapositiba emanaldi guztiak Ipar Haizea elkartean (Bernart Etxepare plaza) egingo dira 20.00etan.

Argazki erakusketa

Ez dira diapositiba saioak eta hitzaldiak Ibiltariaren VII. Astean egingo diren jarduerak bakarrik. Hilaren 26tik 30era "Amazigh" izeneko argazki erakusketa inauguratuko da Ipar Haizea elkartean. Goi Atlasko biztanleen eta paisaien irudiak bildu dira erakusketan. Eguzkia, lokatza, ura, haitzak, haurren irribarreak eta orohar bertakoen begikotasuna agerian geratzen da argazki bilduman. Erakusketa Intxaurreondo Berri kultur etxean ikusi ahal izango da apirilaren 2tik 6ra.

